

Hernaniko liburutegiak gida bat argitaratu du irakurleen laguntzarekin

Orrialde kopuruaren arabera eta gaika sailkatuta daude maileguan hartu daitezkeen liburuak

Hernani. Irakurtzeak behar du lekua lemapean, irakurleen lagun-tzarekin egindako gida argitaratu du Hernaniko liburutegiak udan irakurtzeko proposamenekin.

Orrialde kopuruaren arabera egin dute liburuen banaketa, eta atal horien barruan koloreka banatuta daude, gaiaren arabera. Liburutegiko arduradunek azaldu dutenez, "zerbait ezberdina egin nahi genuen eta konturatu gara jendeak liburu bat aukeratzerakoan tamaina kontuan hartzen duela askotan". Beren hitzetan, "jendea gehiago mugitzen da udan, horrek suposa-tzen duen ekipajearekin eta abar, eta ideia ona iruditu zitzaigun lagungarriak diren bi ikuspegiaren arabera sailka-tzea, tamaina eta gaia".

Horrela, gidaren lehen atala da Maletan lekua behar dutenak: 500 orri baino gehiago. Irakurleek gomendatutakoen artean, bertan kokatzen dira El código da Vinci (Dan Brown), La cultivadora de rosas (Charlotte Link), El jinete polaco (A. Muñoz Molin) edo Sin nombre (Wilkie Collins).

Poltsa batekin nahiko: 300 orri inguru izeneko atala da bigarrena eta horretan aurkitzen dira Paisaje con mentiras (Peter Watson), Suite francesa (I. Nemirovsky), El testigo (Juan Villoro) edo Lagun izoztua (Joseba Sarrionandia).

Hirugarren atalari Binaka eramateko: 200 orri inguru izena eman diote liburutegiko arduradunek. Atal horretan dauden irakurleen gomendioetako batzuk dira Mientras dormían (Donna Leon), La sonrisa etrusca (José Luis Sanpedro), El capitán Alatriste (Pérez Reverte), Portukoplak: itsas kankak eta poemak (Kirmen Uribe) edo Algo más inesperado que la muerte (Elvira Lindo).

Azkenik, Patrikan bertan kabi-tzen dira atalean sartu dituzte Begirada bat Kubari (Iñaki Petxarroman), Tenemos que vernos (María Tena), Txoria (Oh Jung-Hi) edo Multitud errante (Laura Restrepo).

Gidaren azken orrialdean jasota daude zenbait irakurlek liburu konkretu bat aukeratzeko emandako arrazoiak. Gidan azaltzen diren liburu guztiak liburutegian daude ikusgai eta gida bera kultur etxean, Mendi Mendiyan igerilekuetan edo kiroldegian eskuratu daiteke. >A.H.